IZENA:_____ MAILA: ____ DATA:_____ ZENB:_____

Herniora goaz

Orain Herniora heltzeko bideetako bat ezagutuko dugu. Mapa aztertu eta datuak irakurrita, ordenatu testua.



Gailurra
Hernio (1.075 m.)

Kokapena
Hernio mendigunea, Azpeitia eta Tolosa artean, Gipuzkoako Urola Kosta eta Tolosaldea eskualdeetako mugan.

Zailtasun-maila
Erraza.

Malda eta igotzeko denbora
665 m, eta 2 ordu eta 45 minutu (ordu eta erdiko igoera).

Komunikazioak
Azpeitian, GI-2634 errepidea hartu Errezileraino, eta bihurgune handi batera heldu arte jarraitu, 12,5 kilometro-puntuan.

A Magaletako herri guztietatik daude igotzeko bideak, eta bide horiek guztiek bat egiten dute Zelatun lepoan, bide-bukaerako gurutze-bideari ekin aurretik. Oraingoan, biderik agian ospetsuena aukeratu dugu, Errezil herritik abiatzen den bidea, alegia.

B Geralekuaren ondoan, zementuzko mendi-bide baten hasiera dago. Bideak sigi-saga egiten du gora, eta atzean uzten ditu magal aldapatsuetan dauden baserri ugariak.

C Horretaz gain, mendigune hartako gailurrik garaienaren buru, bada orientazio-mahai bat. Egun argia izanez gero, Kantauri itsasoa eta herrialde horretako tontorrik garaienak ikusteko aukera izango dugu.

D Gurutze-bidatik jarraitu baino ez dugu, eta gailurrera iritsiko gara. Han, gurutze ugari aurkituko dugu, baita zenbait gutunontzi ere.

E Ibilbidea Tolosarako GI 2634 errepideko bihurgune zabal batean hasten da. Errezildik kilometro pare batera ferra-itxurako bihurgune bat dago, eta, han, autobus-geraleku bat.

F Lepo hartan, eskuinera egingo dugu, gailurrerako bideko azken zatiari ekiteko asmoz. Ondo markatutako bide ikusgarri bat hartu ondoren, hegoaldeko norabidea hartuko dugu, gailurreko harkaitzen artean, tontorretik hurbil dagoen aterpetxera heldu arte.

G Asfaltoa saihesteko, hainbat lasterbidetan zehar egingo dugu aurrera, eta, ordubeteren buruan (55'), Zelatun mendatera helduko gara. Lepo atsegin hartan, indarberituko gara, atseden hartzeko aterpetxea eta taberna baitaude bertan.

1	2	3	4	5	6	7

LIVEWORKSHEETS